

ARRAKASTAREN ZANTZUAK | Bihar euskaraz eta etzi gaztelaniaz Donostian estreinatu baino lehen, hamarren bat herritatik jaso ditu eskaerak Hika taldeak, antzezlanak programatzaileei sortu dien interesaren seinale

«Ai, ama!», amatasunaren hiru ikuspegi ematen dituen obra, estreinatuko da bihar

Bihar euskaraz eta etzi gaztelaniaz estreinatuko du Hika taldeak «Ai, ama!» («¡Madre mía!») antzezlan Donostian, Egiako kultur etxean, arratsaldeko zortzietan, eta dagoeneko dozena bat herritatik eskaerak

jaso dituzte, estreinaldiaren iragarpenak sortu duen interesaren seinale. Arantxa Iturberen izen bereko liburuan oinarritua, Agurtzane Intxaurrek eta biek egin dute agertokirako egokitzapena. Obra idatziko

protagonista bakarraren lekuan, hiru emakume jarri dituzte, amatasunari buruzko ikuspegi desberdinak agertuz. Larunbatean gaztelaniaz emango dute eta igandean berriro euskaraz.

Joxean AGIRRE

DONOSTIA

Mito klasiko betierekoek antzerkian izan ohi duten tonu hantusteko eta arrandiatuetatik urruti, hiru emakume arrunt eta korriente jarri ditu Hika taldeak agertoki gainean eta amatasunari buruzko beren ikuspegia erakutsiko dute.

Ainhoa Aierbe («Goenkale»-ko Leonor), Miren Gojenola («Goenkale»-ko Amaia) eta Pilar Rodriguez aktoreek agertuko dituzte ikuspuntu kontra-jarriok. «Zergatik erabakitzen du emakumeak ama izatea?» da antzezanaren abiapuntuan egiten den galdera eta emakume bakoitzak erantzun desberdina emango dio. Hiruretako batek, Rodriguezek egiten duen pertsonaia, ez du galderarik egin, galderarik egiteko betarik izan ez duen belaunaldikoa baita.

Agurtzane Intxaurrek antzezanaren sorreraz mintzatu zen. «Hiru urte izango dira Arantxa Iturberen lana irakurri nuela -esan zuen-. Eguberrietako oparietako bat izan zen. Nire semeak sei hilabete zituen orduan eta irakurri nuenean oso gogorra iruditu zitzaidan Arantxak kontatzen zuena, neuk bizitakoarekin bat ez zetorrena behintzat, amatasunaz beste ikuspegi bat nuelako. Hika taldean geunden aktore batzuek amatasuna oso hurbiletik bizi genuean, obra horretan oinarritutako antzezan bat presta genezakeela ikusi genuen. Arantxa aspaldidanik ezagutzen nuen, eta, deitu niolarik, 'Ai, ama!' esan zuen, sorpresa hartu zuen, baina elkarrekin lan egiteko borondatea agertu

MUJERES QUE SE PREGUNTAN SOBRE LA MATERNIDAD

La obra «¡Madre mía!», que mañana y pasado mañana se estrena en Donostia, recrea en escena las diferentes respuestas que dan las mujeres a la «llamada de la maternidad», que la directora de Hika, Agurtzane Intxaurrek, define como «un sentimiento incontrolable y ciego». Sólo una de las protagonistas elude las preguntas. «Pertenece a la generación de nuestras madres», dijo Intxaurrek. •



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Agurtzane Intxaurrek, Miren Gojenola, Pilar Rodriguez eta Ainhoa Aierbe aurkezpenaren aurretik.

HIRU EMAKUME

➤ **Protagonista batek oso garbi du ez zuela inoiz ama izan nahi. Bigarrenak ahalegin handien buruan loritu du ama izatea, eta, hirugarrena, bost seme-alaba hazi ondoren, bakarrik geratu da etxean.**

zidan. Horrela hasi ginen lanean».

Arantxa Iturbe ez zen agertu aurkezpenera, beste konpromiso batzuk zituelako, baina idaz-

ki bat igorri zuen biren arteko «haundunaldiaz» mintzatu eta bigarren erditzea askoz ere errazagoa izaten dela esaten dutenen kontra «bigarren par-

tea ez da askoz errazagoa izan» adieraziz, «idaztea, erditzea bezala, norberak egin beharkekoa baita eta bigarren zati hau biren artan egin dugu. Agurtzane jarri ditu begiak eta nik belarriak. Nirea izan da, hala ere, lanik errazena, hitzak ikuskizunaren zati txiki bat besterik ez direlako». Agurtzane kontatu zuenez, orain urtebete bukatu zuten testua eta hasi ziren buru-belarri ikuskizuna prestatzen. «Zer den 'Ai, ama!?' -gal-

detu zuen Hikako zuzendariak. Esan bezala, irakurri nuenean gogorra iruditu zitzaidan eta gogortasun hori bere horretan eman ordez era komiko batean eman behar genuen, Arantxak liburuan ironiaren bidez gozatu zuen bezala. Dena den, Arantxaren liburuaren erakargarritasuna bere ikuspegi ezohikoan dago, ematen duen ikuspegia politikoki desegokia delako».

Hiru protagonistak luzaz mintzatu ziren beren pertsonaien ezaugarriez. Gojenolak ahalegin handien buruan ama izatea loritu duen emakumearen papera egingo du. Aierbek amatasunik nahi ez duen emakumearena, eta, Rodriguezek, azkenik, bost seme-alaba izan eta orain etxean bakarrik geratu den ama batena.

Santiago Sueiras ekoizleak nabarmendu zuen antzezlana obra idatzi batean oinarritua delarik ere erabat fisikoa eta bisuala dela.

Antzerkiak sortu duen interesaren lekuko, Tolosa, Azpeitia, Oñati, Sopela, Arrasate eta beste hainbat herri eskatu dute dagoeneko emandiren bat beren herrian.